...eta kitto!
689 zkia. 2009-IX-11 ASTEKARIA

Tira, geletara!!

I AM
TÚ ERES
GU GARA
Matrikula Zabalik
VOUS ÊTES
ELES SÃO
Tfnoa: 943 70 09 12
Faxa: 943 82 00 89
Elkar ulertzeko, euskara.
25. urteurrena
EIBARKO UDAL EUSKALTEGIA
euskaltegiaeibar@telefonica.net
PORTALEA – Bista Eder, 10

GALDERA: Zein da nire telefonoarendako leku aproposena?
ERANTZUNA: ...eta kitto!ren Gida Komertziala, jakina!
-943 20 67 76-

ARGITARATZAILEA:
...eta kitto! Euskara Elkartea
HELBIDEA:
Urkizu, 11 - solairuartea
20600 Eibar
TELEFONOAK:
943 20 67 76 / 943 20 09 18
FAXA:
943 20 28 72
Astekariaren E-MAILak:
erredakzioa@etakitto.com
komunikabideak@etakitto.com
publizitatea@etakitto.com
Elkartearen E-MAILak:
elkartea@etakitto.com
normalizazioa@etakitto.com
ERREDAKZIO-KONTSEILUA:
Itziar Albizu
Jose Luis Gorostegi
Silbia Hernandez
Koldo Mitxelena
Ekhi Belar
ADMINISTRAZIOA:
Marisol Uriarte
KOORDINATZAILEA:
Koldo Mitxelena
ERREDAKZIO-BURUA:
Silbia Hernandez
DISEINUA ETA MAKETAZIOA:
Jose Luis Gorostegi
ARGAZKI ARLOA:
Leire Iturbe,
S. Hernandez eta E. Belar.
HIZKUNTZA ARDURA:
Juan Andres Argoitia
Maider Aranberri
PUBLIZITATEA:
Itziar Albizu
Belen Ulazia
Tfnoa: 943 20 67 76
AZALEKO ARGAZKIA:
Ekhi Belar
BANAKETA-ARDURADUNA:
Ihintza Fernandez
TIRADA:
8.000 ale
INPRIMATEGIA:
GERTU koop. (Oñati)
COPYRIGHT-A:
...eta kitto!
LEGE-GORDAILUA:
SS/430/92
ISSN: 1132 - 1679
("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

ETSI-ETSIXAN.- Adore biziz. *"Etsi etsixan banator, nahiz da edurra egin".*
ETSIPENA EMON.- Gaisoa sendaezintzat jo. *"Gizajuari osagille onenak emon detse etsipena".*
ETXEKALTE.- Norbere etxearen edo interesen kontra diharduena. Dirua erraz xahutzen duenari ere esaten zaio. *"Gizonak alperrontzi etxekalte negargarrixa urten detsa koittauari".*

ESKUTITZAK

AKATSAK ZUZENTZEN

Azken aleko Gure Gaia atalean, Arraten urte osoa ematen dutenekin egindako erreportajean, On Pedro Zelaia ipini genuen Arrate Irratiko sortzaile moduan, egiari zor On Pedro Gorostidiren izena sartu behar genuenean. Artikuluaren egileak jakin baldin bazekien ere azken hau izan zela hainbeste urtetan euskeraren alde lanean diharduen emisora horren sortzailea, "iratxo" batek gure herriaren alde beste hainbeste lan egindakoaren abizenarekin kaleratzea ahalbidetu zuen. Hankasartzea barkatuko diguzulakoan, eskerrik asko irakurle gu jarraitzeagatik.

ERREDAKZIOA

asteko HEMEROTEKA esaldiak

" Tabakoarekin lege lehorraren antzerakoa aplikatuko dugu, erretzaile pasiboak arriskuan daudelako. Taberna bakar batean ere ezingo da erre, 10 metro izan edo 200 dituela ere, eta erretzaileentzako guneak izan edo ez. Diskoteketan, berdin; erretzea nahi duenak kalera irten beharko du. Frontoietan? Iparraldean ezin dute erre eta ez da ezer pasatzen. Gauza bera Irlandako pub-etan; han ere kanpora irtetzen dira, eta hotz handiagoarekin. Gizartea kontzientziatu behar dugu, europarrak bagara"

(Celina Pereda, Eusko Jaurlaritzako Drogo-mendetasunetako zuzendaria)

"Benetan uste duzue berdinak garela legearen aurrean? Estatua gure kontra izatea, bakarrik une txiki batean eta hankasartze batengatik bada ere, gerta ligukeen txarrena da. AEB ere pigmeoak besterik ez dira besteon proiektu eta produktuak jarraitzen duten bakoitzaren Estatuen ondoan. Gaur Estatua inoiz baino blindatuago dago eta zapaldu besterik ez digu egiten; hiritarra, bestalde, babesik gabe dago. Salaketarik jaso gabe, kartzelaratu dezakete edo bere kontu korrontea blokeatu... Hori bai, funtzionario publikoek sekretuak kaleratzen dituzten bitartean"

(Eduardo Punset, zientzialaria)

EIBARKO UDALA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)

kutxa

Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria

autuan

MATSARIAKO ZENTRUA
Gazteentzako zentrua irekiko da Matxarian urtarrilean modu progresiboan. Bertan 20 eta 24 urte bitarteko gazte kopuru murritza jasoko da. Udalak informazio ofizialik ez badu ere, Matxariakoaz gain Aixolan beste zentru bat irekitzeko asmoa dauka Gipuzkoako Foru Aldundiak.

TEKNIKER FLEXICOATEN BURU
Tekniker Europar Batasunak finantzaturiko Flexicoat proiektua gidatzen dihardu. Pymeetarako azalak modu seguru eta ekologikoan estaltzeko teknika bat da Flexicoat. Sistema honek aurreko beste batzuk ordekatzea ditu helburu, eta eskutokiak estaltzeko erabiltzen da, besteak beste.

FORU-LAGUNTZAK ABC-RENTZAT
ABC inguruko enpresak nazioartekotutzeko Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntza atalaren laguntzen programan sartu dute. Programa honek 355.000 euro eskaini dizkie Gipuzkoako lau enpresari India eta Txinako ekoizpen lantegiak indartzeko. ABC enpresaz gain, Hernaniko Seiak eta Idiazabaleko Ampok ere jaso dituzte diru-laguntzak.

ESPERIENTZIA ESKOLA
Ekainaren 8tik dago Esperientzia Eskolako hurrengo ikasturtean izena emateko aukera. Urriaren 23ra arte egongo da epea zabalik eta interesa dutenak Itziar Elustondorekin harremanetan ipini behar dira nagusiak@debegesa.com helbidera idatziz edota 943820110 telefonora deituz. Bestela, Aitziber Indart-eri idatzi aindart@fmatia.net helbidera edo 648045125 telefonora deitu.


Portaleako sarrera, Eulogio Garate kalean / Silbia H.

Igogailua ipintzeko lanak Portalean

PORTALEA KULTUR ETXEAN BIGARREN IGOGAILU BAT IPINTZEKO BEHARREK AURRERA DIRAUTE eta, horien ondorioz, eraikinera sartzeko orduan aldaketak daude: sarrera nagusia Bista Eder kalean egon beharrean, Eulogio Garate kalean dago orain. Bertatik sartuta, behin-behineko seinalizazioa prestatu dute, eraikineko zerbitzu ezberdinetara nola ailegatu azaltzen. Hala ere, Juan San Martin Liburutegira zein Udal Euskaltegira sartzeko Bista Eder kaleko atea erabili daiteke. Beharrak martxa onean doaz eta, aurreikusitako epeei jarraituta, urte honen amaierarako igogailu berria martxan egongo da eta, horrekin batera, lehengo sarrera berreskuratu egingo da.

Eusko Trenen neguko ordutegia

DEBABARRENAN EUSKO TRENEK ESKAINTZEN DITUEN AUTOBUS ZERBITZUETAN neguko ordutegia sartu da indarrean. Mallabia-Deba-Ondarroa ibilbidea betetzeko autobusak berriz ere ordu erdioro irtengo dira ia egun osoan, astegunetan. Eibar-Deba Express ibilbidea betetzeko, astelehenetik barixakura 18 zerbitzu eskainiko dira. Eibar eta Mendaroko ospitalaren arteko autobusak, berriz, orduoro ibiliko dira. Udalbus zerbitzuaren ordutegia honakoa izango da: astegunetan ordu erdioro irtengo da Amañatik, 07.25etan hasi eta 13.25ak bitartean. Horrez gain 14.25etan, 16.55etan, 17.55etan eta 18.55etan autobusa egongo da. Azitainetik, berriz, 07.00etatik aurrera eta 13.00ak arte ordu erdioro irtengo dira autobusak. Horrez gain 14.00etan,

14.30etan, 17.30etan eta 18.30etan ere autobus zerbitzua eskainiko da. Zapatuetan, 40 minutuoro ibiliko dira autobusak.

Lanbidek gero eta jende gehiago hartzen du

KRISIAREN ONDORIOAK LANBIDE EUSKADIKO ENPLEGU ZERBITZUAN ere antzeman daitezke, bertatik helarazitako datuei begira. Iaz Debabarrenako 1.317 lagunek jo zuten lana bilatzeko laguntza bila. Lanbidek Debegesaren egoitzan, Azitaingo industrialdean eskaintzen du aholkularitza eta laguntza zerbitzua. Lanbidera jo zutenen artean, 671 andrazkoak izan ziren eta 646, berriz, gizonezkoak. Batez ere 25 eta 34 urte bitarteko lagunek jo zuten orientazio bila (%40), baina 35 eta 44 urte bitarteko adin tarteak ere talde garrantzitsua osatu zuen (%25). Atenditutakoen artean 501 lagun eibartarrak ziren (%38), %17 ermuarrak, %15'6 elgoibartarrak eta gainontzekoak eskualdeko beste herrietatik gerturatutakoak. Urtebeteko tartean, 2007tik 2008ra, Lanbidera jo zuen jendearen kopuruak %37 egin zuen gora.



Fiskalitateari buruzko jardunaldia

DATORREN EGUZTENEAN, HILAREN 16AN, FISKALITATEA ETA ENPRESA FORMA JURIDIKO ezberdinei buruzko jardunaldia egingo da Debegesan, 15.00etatik aurrera. Jardunaldiak hiru orduko iraupena izango du eta Ermuko Torrealday Aholkularitza enpresaren eskutik garatuko da. Hirugarrenez antolatzen den jardunaldi horretan enpresen forma juridiko ezberdinak eta zerga-betebeharrak aztertuko dira. Ekimenak Debegesak Debabarreneko enpresei laguntzeko eta sendotzeko zerbitzua indartzeko duen asmoaren ildoari erantzuten dio.

Antolatzaileen berbetan, jardunaldian gai bi landuko dira: *"Alde batetik, enpresek izan ditzaketen forma juridiko ezberdinak azalduko dira, beren ezaugarri nagusiak, abantailak eta desabantailak azalduta. Prestakuntza horrek enpresa bakoitzari berarentzat egokiena izan daitekeen forma juridikoa aukeratzen lagundu diezaioke. Bestalde, zerga-betebehar desberdinak ere aztertuko dira, batez ere BEZarekin eta PFEZarekin lotutakoak".*

Jardunaldian parte hartu ahal izateko izena emateko edo informazio gehiago jasotzeko, 943820110 (Berrikuntza eta Enpresa saila) telefono zenbakira deitu edo, nahiago izanez gero, ekintzaile@debegesa.com helbide elektronikora idatzi daiteke.

Kiroldegiaren fatxada berrituta

ABUZTUA APROBETXATU DUTE IPURUA KIROLDEGIAREN FATXADA ITXURABERRITZEKO. Eibarko Udalak Madrilgo Gobernuak aurten eman dituen diru-laguntzak aprobetxatu ditu hainbat konponketa lani ekin ahal izateko eta, horietako bati esker, kiroldegiak eraikinaren fatxada nagusia zaharberritu eta garbitu egin du. 88.000 euroko aurrekontua erabili dute fatxada osoa garbitu, margotu eta aldatu beharreko zatiak aldatzeko.

88.000 euroko aurrekontua erabili dute lan hauetarako / Ekhi Belar

auzorik auzo

Barrenenguako errepidea, azarorako

El Corte Inglés berriaren aldameneko biala ez da osorik zabalduko urtearen amaierara arte. Orain dela egun batzuk Arrateko jaietarako zabaltzeko ahalegina egingo zutela azaldu bazuten ere, Udal ordezkariek euren asmoa atzera bota behar izan zuten, segurtasun neurriak betetzearren; izan ere, errepidearen aldamenean merkataritza gune berria jasotzeko beharrek aurrera diraute eta, horiek amaitu bitartean, badaezpada errepidea itxita egotea komenigarriagotzat jo dute. Lanetatik errepidera metro eskaseko tartea dago eta, aurretik errepidea hondoratu izan dela kontuan izanda, beharrak amaitu arte errepideak itxita jarraitzea hobe dela erabaki dute agintariek. Hori dela eta, San Andres pasealekua bariantearekin lotuko duen errepide zatia trafikoari zabaltzeko hilabete batzuk itxaroen beharko dugu. Aurreikusitako epeak betez gero, azarorako el Corte Inglés berria zabaltzeko moduan izango da eta, horrekin batera, Barrenenguako errepidea ere berriz erabiltzeko moduan izango da.

eibar kaleka

Jose Antonio Iturriotz

Urkin, kanposantu aldameneko kaleak 17 urtez Eibarko alkate edo alkateorde izandakoari zor dio izena. Hiru ekimen aipagarri aitortu zaizkio: Untzagako udaletxea egitea, Eibarko Plan Orokorra argitaratzea eta Legarren Ospital berria jasotzea. Etxeetaraino ura eramatea ere bera alkate zela lortu zen. Burilista fina, 64 urterekin beharrean zegoela hil zen, 1916ko otsailaren 23an.

Pegora kopurua: 2. Erroldatutakoak: 63.

Errebal Center ez da egingo

asteko %365 datua

gehiago ordaintzen du eibartar batek zirkulazio-zergan, Melillako herritar batek baino. Europako Autogidarien Elkarteak egindako azterketaren arabera, estatu mailan Eibarren eta Donostian ordaintzen dira zirkulazio-zergarik altuenak, Madrilen baino %24, Valentzian baino %37 eta Sorian baino %102 gehiago.

UDALEKO GOBERNU-BATZARRAK ATZO PRENTSAURREKOAN JAKITERA eman zuenez Errebal Center ez da egingo. Miguel De los Toyos alkateak, Mertxe Garate (Alkarbide) eta Eva Juezek (EAJ) *"krisi ekonomikoaren ondorioa"* dela azpimarratu dute, eta Udalaren nahia Errebaleko lur-eremua berreskuratzea eta SPV Boulevardek dituen zorrak kobratzea da, eta negoziaketak hasiko dira alde bien artean.

De los Toyos alkateak adierazi zuenez, SPV Boulevardek uztailaren 14an proiektua Pegoran erregistratu zuen lanak hasteko lizentzia lortzeko. Baina ordutik hilaren amaierara arte gauzak aldatu ziren. *"Euren inbertsio fondoko, CVI Globaleko (bazkide kapitalista), ordezkari bat etorri zen Londresetik nirekin berba egitera eta krisi eszenatoki bat deskribatu zidan, eta SPV Boulevardek ezin ziola aurre egin proiektuari ekonomikoki".* Udalaren nahia Errebaleko lur-eremua berreskuratzea da, baina salmenta kontratuan ez da hori aurreikusten. *"Negoziaketak hasiko gara CVI Globalekin, eurak baitira orain gurekin berba egiteko boterea dutenak, eta lur-eremua berreskuratzen eta gurekin dituzten zorrak kobratzen saiatuko gara. Negoziazioak aurrera joan ezean bide judiziala hartu beharko dugu".* Lur-eremua berreskuratuz gero, Errebalen aparkalekuak egitea pentsatzen du Udalak hasiera batean, *"eta etorkizunera begira Errebalekin zerikusia duten guztien sentsibilitateak jasoko ditugu proiekturen bat aurrera eramateko".* Bost puntu azpimarratu ditu hirukoteak etorkizunera begira: *"Bizilagunentzat aparkalekua, aparkaleku publikoa, erakargarritasun komertziala, merkatu-plaza eta astiunea".* Momentuz, alkateak aipatu du egin duela berba Errebalen inguruan dauden protagonista guztiekin.

Oin dala hamar urte

1999-IX-6 / 284. ZKIA.



- Dultzaineruaren eskulturia Sanjuanetan Estaziñuan inaugurau eta gero, Alfa-Arte herriko enpresa Urkizuko itturrixaren onduan handik gitxira kokatuko zan 250 kiloko pisua dakan botijeruaren figuria egittiari ekin zetsan.
- Udalak erosittako "Eibar Industrial" pelikulia emon eben lehelengo bidar. Unibersidade Laboralian eskindutako filmaziñuak 1966xan grabatutako irudixak dittu eta herriko hainbat industria ikusi leikez.
- Iñaki Zabaleta 54 urteko donostiarra izendau eben San Andres elixako parroko barrixa. Hillaren 5ian Joxin Arregiren tokixa hartu eban eta , hona etorri aurretik, Ordizian, Legazpin eta Beasaiñen egondakua zan.
- Susana Magunazelaia, Cristina Cardama eta Elisa Cordónek sortutako Lastebide proiektuak urte hartako "Turideia" lehiaketia irabazi eban. Proiektuarekin enpresa euskaldunendako turismua piztu gura izan eben.

Oin dala 365 egun

- Auzozaiñak azken ikasturtian 800 txostenetik gora egiñ ebela emon eben jakittera. Euretatik, ixa berrehun beheko kalietan, 230 zentruan, 160 Amaña eta Legarre inguruan eta beste 230 Ipurua aldian.
- 4.143 ikaslek hasi eben ikasturtia Eibarko ikastetxietako geletan, euretatik 330 ikasle barrixak. Haur Hezkuntzan 1.043 eguazen, LHn 1.212, BHn 908, Batxillerguan 522 eta heziketa zikluetan 449.
- Juan Leturiondo eta Felix Alberdi Arrateko Amabirjiñaren anderueri omenaldixa egin jakuen Arrateko jaixak aprobetxauta. Arrate inguruko basarrixetakuak dira bixak eta egun berezixa pasa eben.
- Aparkaleku gehixago sortzeko, aurreikusitta eguazenak baiño lur azpiko solairu bat gehixago egitteko daguazen aukerak aztertzen ziharduen Value Investment promotorak. Beste sasoi batzuk ziran.

2008-IX-12 / 647. ZKIA.

Lehelengo kasua argira etara ebenetik, hedabidien artian ez dago egunik A gripia protagonistia ez danik. Mundu osora zabaldu dan fenomenua da eta inguruan askok izan dittue gaixotasunaren kasuak. Halanda be, psikosi hutsa dala esaten daben jende asko be badago, atzian interesak daguazela argudiatuta.

A gripiari bildurra detsazu?



Jose Atxa
87 urte
jubilaua

Ez detsat bape bildurrik. Etorriko da etorriko dana eta kitto. Bakunatu bihar banaiz, bakunauko naiz; bestela, ezebez. Gripe normalerako urtero bakunatzen naiz, baiña tira. Begittantzen jata A gripian gaiñian berba gehixegi egitten dihardutela eta ez dala bestia baiño txarragua.

Resti Rodríguez
60 urte
etxekoandria

Nik 1956xan pasau neban A gripia edo dana dalakua, eta esan dabe hori pasau ezkero ez daguala arriskurik, holan, trankil nago. Inmunizatuta naguala esan dabe eta ez dakat bildurrik, halanda be, umiekin nabilenez hartzen dittut neurrixak badaezpada be.

Olatz Arce
34 urte
bihargiña

Ez desta gehixegi bildurtzen. Umia haur-eskolara juaten bada edo holakoren bat bai, hor sartzen jata bildur gehixago, baiña bestela ez. Anbulatorixora juaten banaiz eskuak ondo garbitzen dittut eta estula egittian eskua ipiñi ahuan, baiña beste barik, ez dot ezer berezirik egitten.



Juan Goitia
80 urte
jubilaua

Bildur pixkat emoten dau, baiña ez dakitt zenbateraiño izango dan egixa esaten deskuena. Bildurra sartzen deskue gaixotasun eskasa dala esaten deskuelako, eta aillegauz gero ia zer gertatzen dan. Urtero bakunatzen naiz gripe normalerako, baiña edade bat dakat eta bestiak pixkat bildurtzen nau.



Ikasliak IKASTURTIARI heltzeko gertu

Arrateko jaixak markatzen dabe Eibarko ikaslien kalendarixua, klasera bueltatzeko orduan, behintzat. Herriko ikastetxietako ikasgeletako batzuk eguaztenaz geroztik hasi dira betetzen eta oindiok hutsik daguazenak, barriz, datozen egunetan sosiguz-sosiguz betetzen juango dira. Danera 4.275 neska-mutillek ekin edo ekingo detse kurtsoari gure herriko ikastetxietan, iaz baiño 132 ikasle gehixago eta oin dala urte bi baiño 282 gehixago.

Matrikulaziñuetan emon dan gorakadia ez da oso nabarmena, baiña egixa da azken urtiotan ikasle kopuruan gorantzako joeria ikusi geinkiala. Halanda be, joera horrendako arrazoia jaixotza kopuruarekin zuzen-zuzenian lotuta dago: azken urtiotan ume gehixago jaixotzen diharduela-eta, hortxe dago aldia.

Haur Hezkuntzan (2-5 urte) 1.040 ikaslek emon dabe izena eta horretatik lehelengoz eskolia zapalduko dabenak (urte bikuak) 314 izango dira. Lehen Hezkuntzan (6-12 urte) 1.273 ikaslek ekingo detse ikasturte barrixari. DBHn 12 eta 16 urte bittarteko 929 ikasle dagoz matrikulauta, Batxillerguan 517 ikasle, erdi maillako ziklo formatibuetan 178 eta goi maillakuetan, barriz, 338.

Ikasliak betetako matrikulen arabera, gehixenak (%68'5) ikastetxe publikuetan ikasiko dabe. Pribaua ikaslien %31'6k aukeratu dabe. Ikasteko orduan aukeratutako hizkuntza ereduari begira ipiñitta, barriz, Haur Hezkuntzan izena emonda daguazen ume guztiak euskera hutsian jardungo dabe (D ereduan). Lehen Hezkuntzakuen artian, barriz, gehixenak (%86) D ereduan matrikulauta dagoz; gaiñontzekuak bakarrik ikastetxe pribauetan emoten daben eredu elebiduna (B eredua) aukeratu dabe. Eta, urtiotako joeriari jarraittuta, urtietan zenbat eta aurrerago juan, orduan eta gazteleraren presentzia haundixagua, nahiz eta urtetik urtera joeria aldatzen juango dan aurreikusten daben: DBHn euskera hutsa aukeratu dabenak %66 osatzen dabe (%34k elebiduna hautatu dabe); Batxillergoko ikaslien %57'8k euskeraz ikasiko dabe eta, B eredurik ez daguanez, beste ikasliak (%42'2) gazteleraz ikasiko dabe; eta ziklo formatibuetan gaztelera nagusi da (%70k aukeratu dau erdi maillakuetan eta goi-maillakuetan %77k). Dana dala, beheko mailletan D eredua nagusi izanda, datozen urtietan goiko mailletan be D eredua nagusitzen juatia izango litzateke logikuena.

Federico Mayo ikastetxeko sarreria, San Andresen egitten diharduen bezala, hobetu egingo dabe. / Ekhi Belar

Ikasliendako agendia

Azken urtiotako martxiari jarraittuta, herriko ikasliak ikasturte barrixarekin batera agendia estrenauko dabe. Aurtengo agendia Eibarko kirol kluberi eskindutakua da, iazkuaren bidetik, baiña ediziño honetan aurrekuan kanpuan geratu ziran taldiak sartu dittue: Multikirolak, Urko Arkularixak, Urbat urkotronik water-polo taldia, Urki-Amaña karate kluba, Klub deportiboko eski, pelota eta mendi taldiak, debabarrena Elgoibar-Eibar areto foballa, Eibar K.Ea eta Eibar Triatloi Taldia. Talde horren gaiñeko irudixak eta testuak gehittu detsez agendiari eta azala eta kontrazala, barriz, Izaro Fernández Iriondo gaztiak diseiñatutakuak dira. Udalak argitara emondako agendaren 3.400 aliak egunotan banatuko dittue herriko ikastetxietan. Adiñaren arabera eredu bi dagoz, bata Lehen Hezkuntzako ikasliendako eta bestia, barriz, DBH, Batxiler eta Lanbide Heziketako ikasliendako. Agendak, egutegixa eta bestelako informaziño praktikua batziaz gain, testuetarako ereduak, jarduera hezitzailliak eta interneteko helbide interesgarrixak be jasotzen dittu.

Gurasuendako eskuliburua

Atzo bertan aurkeztu eben udaletxian agendia, Maria Jose

Telleria Euskera-Kultura ziñegotzixak eta Carmen Larrañaga Hezkuntza ziñegotzixak alkarrekin egindako agerraldixan. Agendia ez eze, urte birik behiñ argitaratzen daben 'Ume eleanitzen gurasoentzako eskuliburua' be presentau eben. Liburutxo hori Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe guztietan banatuko dabe. Haurreskoletan be banatuko dabe eta bestela be, Umien Liburutegixan eskuratzeko moduan izango dala aurreratu dabe. Liburutxuan gurasuen ohiko kezkeri erantzuna emoten ahalegintzen dira eta, horrez gain, gurasuendako erabilgarrixak diran beste hainbat kontu eskintzen dittue: Eibarren euskeraz garatzen diran aisialdirako jarduerak, umieri eskolako lanak egitten laguntzeko orientabidiak eta Juan San Martin Liburutegixan eskolako lanetarako laguntgarrixa izan leikian materixalaren barri be emoten dabe.

Atzo presentau eben ikaslien artian banatuko daben Eskola Agenda. Argazkixan, ziñegotzixekin batera, kirol klubetako hainbat ordezkari / Ekhi Belar

Ikasliendako diru-laguntzak

Materixal erabilgarrixa eskintziaz gain, Eibarko Udalak dirulaguntzak emongo detsez ikaslieri, azken ikasturtiotan egin daben moduan. Ikasturte hasieran ikaslien etxietan sortu ohi diran gastueri aurre egitten laguntzeko helburuarekin sortutako diru-laguntza horrek atal bittan dagoz banatuta: batetik Umeak Eskolara izenekuak dagoz eta horrek Eibarko erroldan daguazen umiak (1994ko urtarrilaren 1etik 2003ko abenduaren 31ra bittartian jaixotakuak) eskatu leikie. 1984ko urtarrillaren 1etik 1993ko abenduaren 31ra bittartian jaixotakuak, barriz, Diru-laguntzak Ikasleei izenekuak eskatzeko moduan dagoz. Kasu bixetan Pegorara juan bihar da, bai informaziñua eskatzeko bai eskaerak presentatzeko. Ikasle bakotxak 60'10 euro jasoko dau, gehixen jota, herriko dendetan arropak eta bestelako materixala erosten gastatzeko. Udalak 180.000 euroko partidia dauka diru-laguntza horretan erabiltzeko eta ixa danera 3.000 ikaslek aprobetxauko dabe Udalak emoten detsen aukeria.

Haurreskola barrixen zain

Ikasturtia ointxe hasitta be, herrixan zabalduko diran Haurreskola barri bixak zabalik ikusteko oindiok itxoin egin biharko dogula aurreratu desku Pilar Pujana Udaleko hezkuntza teknikarixak: *"Urkin, Arrateko Andra Mari ikastetxeko jolastokixan eta Amaña Herri ikastetxekuan zabalduko diran Haurreskola bixetarako biharrak hasitta dagoz eta martxa onian doiaz, aldaketarik ez badago, urtarrillian zabaltzeko moduan egongo dirala pentsatzen dogu. Dana dala, biharrak piskat aurreratuago doiazenian, Bittor Sarasketako Haurreskola zabaldu aurretik egin genduan moduan, billeria egingo dogu gurasuekin, informaziñua zabaldu eta dittuen galdereri erantzuteko. Haurreskola bixak, martxan daguanaren moduan, Haurreskola Partzuerguak kudeatuko dittu, oiñ arteko irizpidieri jarraittuta eta billera horretan be eurak hartuko dabe parte, duda guztiak argitzeko".* Haurreskolen gaiñeko informaziño gehixago nahi izanez gero, www.haurreskolak.net helbidera jo leike.

TEEN-AJEA

Gauzak ez ahazteko ez dago agenda erabiltzea baino hobeagorik. Gainera, ikasleen kasuan, burua ikasketetan sartuta izaten dute gehienek eta zaila da beste gauza guztiak barnean gordetzea. Agenda da salbazioa, eta Izaro Fernandezen diseinua eramango du aurtengo 'Eskola Agendak'.

Ez da hau Izarok irabazten duen lejen saria. Hona hemen Ipurterre ipuin lehiaketa irabazi zueneko irudiak.



IZARO FERNANDEZ, ikaslea:

"Kirolean, irabaztea ez da garrantzitsuena"

- Nolakoa da zuk diseinatutako 'Eskola Agenda'?

Aurretik Multikiroletan eta abar ibili izan naizenez, kirol guztiak azaltzea izan da nire asmoa. Horrela, azalean labirinto antzeko bat egin dut kirol ezberdinen marrazkiekin, eta kontrazalean koloredun marraskilo bat kirol ezberdinen marrazkiekin baita ere. Gainera, marraskiloak eskuak altsatuta ditu zerbait irabazi izan balu bezala. Bestetik, marrazkian islatu nahi izan dut kirola egitean garrantzitsuena ez dela irabaztea, parte-hartze soila ere irabaztea dela. Jendea beti irabaztera doa eta ez du beste ezer buruan, eta hortik datoz ondoren haserre eta halakoak. Beraz, mezu hori ere igorri nahi izan dut.

- Nola inspiratu zinen diseinu hori egiteko?

Klasean lehiaketa honetan parte hartzeko esan ziguten eta egin egin nuen, besterik gabe. Hasiera batean ez nuen egiterik izan nahi, pentsatu nuelako hainbeste parte-hartzaileren artean ez zutela nirea aukeratuko, baina tira.

- Irabazi ahal duzu aurretik antzeko lehiaketarik?

Marrazkiei dagokionean bai, lehen aldia izan da, baina aurretik Ipurterre lehiaketa irabazi izan dut.

- Agenda erabiltzen duzu?

Bai, normalean egunero etxerako lanak eta horrelakoak apuntatzeko erabiltzen dut.

- Orain aitzakia gehiagorekin, ezta?

Bai (barreak). Pozgarria da agendek nire marrazkiak izatea.

- Lagunek zer komentatzen dizute zure marrazkidun agenda erabili behar izateagatik?

Txantxetan ibiltzen gara horrekin, baina sariarengatik galdetzen didate gehien bat.

- Nolako saria jaso duzu bada?

350 euroko saria eskuratu dut.

- Pentsatu al duzu sari horrekin zer egin?

Erdia gorde egingo dut eta beste diru guztiarekin oraindik ez dut zer egin pentsatu, egia esan.

...eta kitto! Astekariak BANATZAILEAK behar ditu

Eginkizuna: ...eta kitto! Astekaria banatzea

Eskaera:
- 16 urtetik gora edukitzea
- Barixaku arratsaldeetan libre egotea
- Arduratsua izatea
- Euskera ondo jakitea ezinbestekoa

Izena emateko deitu 943 20 09 18 telefonora edo pasatu gure bulegoetatik

GATE English School

LOREA HERNANDEZ ARIZAGA
INGELES FILOLOGIAN LIZENTZIATUA
Ibarkurutze, 4 - 1. ezk. 605 716 717

Ei Gazte! lehiaketa martxan

Eusko Ikaskuntzak deituta Ei Gazte! 2009! lehiaketa abian da. Bigarren edizioa da aurtengoa, eta 18 eta 30 bitarteko gazteei dago zuzendua. Dokumental, fikzio-lan, poster eta komunikazioen aurkezpenen bitartez, XVII. Kongresurako ezarritako jardunbideak landu behar izango dira parte-hartzeko.

Eusko Ikaskuntzaren Gazteria Sailak Ei Gazte! lehiaketa jarri du martxan. Lehiaketaren bigarren edizio honen helburuak, antolatzaileen berbetan, honakoak dira: Dokumental, Fikzio-lan, Poster eta Komunikazioen gaiek erlazioren bat izan behar dute XVII. Kongresurako ezarri diren jardunbide edo dimentsioekin. Hau da, berrikuntza, bizi–kalitatea, herri–ondarearen birbalorarizazioa, genero–sistema, gizarte–tentsioa, globalizazioa, justizia, elkartasuneko gizartea eta gizarte memoria gaiekin izan behar dute zerikusia.

Edizio guztietan sarian parte hartu nahiko duten eta Euskal Herrian edo Diasporako herrialdeetan bizi izango diren pertsonek parte har dezakete. Nolanahi ere, 18-30 urte bitarteko gazteek bakarrik parte hartu ahal izango dute lehiaketetan. Bestetik, 2009ko urriaren 19an amaituko da lanak onartzeko epea. Lanak posta ziurtatu bidez bidaliko dira, edo eskutik eskura emango ondoko helbidean: Eusko Ikaskuntza-Sociedad de Estudios Vascos; Gazteria Saila; Miramar Jauregia, Miraconcha 48; 20.007 Donostia (Tel. 943 31 08 55).

Urriaren 19a izango da lanak aurkezteko azken eguna.

Hiru maila

Saria hiru mailatan banatzen da: Dokumental eta Fikzio-lanak, Posterrak eta Komunikazioen aurkezpenak. Sariei dagokienez, bestetik, 1.000 euro jasoko ditu maila bakoitzeko garaileak, eta euren izenak azaroaren 2an emango dira jakitera.

Dokumental eta fikzio-lanek gaurkotasuna izan behar dute. Bestalde, genero bietako lanak ikus-entzunezko formatuan aurkeztuko dira. Horrela, lanek 30 minutu iraungo dute gehienez eta nazioarteko komunitate zientifikoak darabilzkien hizkuntzetako edozeinetan bidali ahal izango dira baina, batez ere, Euskal Herriko hiru hizkuntza ofizialetan. Jatorrizkoak DVD euskarrian aurkeztuko dira DVDan erreproduzitzeko, eta 60 hitz baino gutxiago izango dituen azalpen-laburpena ere bidaliko da.

Posterrek ere gaurkotasuna izan beharko dute eta nazioarteko komunitate zientifikoak darabilzkien hizkuntzetako edozeinetan bidali ahal izango da. Bestetik, posterren neurria 120x80 cm-takoa izan beharko da bertikalean, eta titulua goian eta egilearen izena behean eraman behar ditu, nahiz eta bestelako informazioa bakoitzak nahi bezala banatu ahal izango den.

Komunikazio gaiek, bere aldetik, gehienez 300 hitzeko luzera izango dute eta 60 hitz baino gehiago izango ez duen laburpen adierazgarriarekin batera entregatu behar dira. Jatorrizkoak euskarri informatikoan aurkeztu beharko dira, word programarekin eginak. Bestalde, Ilustrazioak, grafikoak, taulak, etab. euskarri informatikoan aurkeztuko dira (tiff edo jpg formatuan, gutxienez 300 pp-ko bereizmenarekin) eta neurria nahikoa handia izan behar da kopiak egin ahal izateko (gutxienez, 10 x 15 cm). Informazio gehiago lortu nahi izanez gero eigazte.eusko-ikaskuntza.org webgunera jo.

EUGENIO UZKUDUN GARITAGOITIA

(2009ko irailaren 6an hil zen, 61 urterekin)

Senideen izenean, eskerrik asko hileta-elizkizunera joan eta samin-agurrak bidali dizkiguzuen guztioi.

Bere aldeko meza ospatuko da domekan, 11.00etan, Amañako Salbatore elizan.

Lucio Hernando ingeniari eibartarra da Donostiako Parke Teknologikoko zuzendari berria. Aurretik enpresa gestio eta giza-baliabideen arloan lan egindakoa da Lucio, eta bere esperientzia eskaintzen saiatuko da Miramonen. Kargua hartu berri badu ere, "oso pozik" dagoela aitortu du Hernandok.

LUCIO HERNANDO ALBISTEGI, Miramon Parke Teknologikoko zuzendaria:

"Miramon Gipuzkoara zabaltzeko irekita eta interesatuta gaude"

- Kargua hartu berri duzu. Hasiera batean, zeintzuk dira zure asmo handienak Donostiako Parke Teknologikoko zuzendari bezala?

Esan Parke Teknologikoaren egitura sendoa dela, 10 urteko ibilbidea duelako. Beraz, nire asmoa are gehiago sedotzea eta enpresa berriak jaso ahal izatea da. Badago gehikuntza prozesu bat martxan, baina hemengo administrazio kontseiluaren onespena behar dute eta hortan gabiltza. Horien artean, besteak beste, Baske Culinary Center aurkitzen da, Mondragon Unibertsitateko Ostalaritza Eskola. Ikusten da, beraz, nahiz eta krisi egoeran egon, enpresek badutela interesa hona etortzeko. Dinamikoa dela esan dezakegu. Adibidez, Donostiako Ospitalea alboan daukagu eta eurekin elkarlanean 'Donostiako Institutu Biosanitarioa' egin dugu, eta ikerkuntza medikoak egingo ditugu bertan.

- Modu batean edo bestean zure ukitu pertsonala ematen saiatuko zara?

Zorionekoa nahiz, izan ere, 10 pertsonako lantaldea daukat, oso gaituak, profesionalak eta hemen gutxienez 6 urtetan lanean ibili direnak. Aurretik giza baliabideen gainean lanean ibilia izan naiz, horrela, zorionekoa naizela esan dezaket.

- Zenbatekoa da Parkearen okupazioa gaur egun?

Eraikuntzek %93ko okupazioa daukate. Ekainean, adibidez, eraikuntza berria egin zen eta beteta dago jada. 2010eko urtarrilaren amaierarako ere beste eraikuntza berri bat egongo da eginda eta urte bitan betetzea espero dugu. Kontua da ekologia eta garapen iraunkorrarekin konpromisoa dugula eta eremu zabala badaukagu ere, ezin dugula dena eraikinez bete.

- Txiki geratu da Donostiako Parke Teknologikoa?

Aurretik aipatu bezala hemen lekua badaukagu: Parkeak 750.000m2 ditu eta enpresek 125.000m2 betetzen dituzte. Dentsitate baxuko Parkea dela esan daiteke. 66 enpresa eta 2.900 langile hartzen ditu bere baitan, eta enpresek guztira 400.000.000 euro fakturatzen dute. Informazio-teknologiako enpresak, biomedikuntzakoak, zentro teknologikoak (Makina-Erreminta, biomaterialeak, Bic-Berrilan…)… jasotzen ditugu besteak beste. Badago joera Parkea zabaltzeko, eta lur berriak erosteko berriketetan gabiltza, baina momentuz ez dago ezer konkreturik.

- Eta beste herrietara zabaltzerik badago?

Hasiera batean Donostian kokatuko zen Parke Teknologikoa izango zela pentsatzen zen, Zamudio eta Miñanon egin zen bezala. Baina oinarria Miramonen izanik, ez diogu ateak ixten Gipuzkoako beste herri batzuetan Parke Teknologiko berriak irekitzeari, gainera hori da gaur eguneko joera, eta enpresa eta erakundeek interesa aurkeztuz gero guk pozik hartuko genuke berria. Irekita eta interesatuta gaude.

- Eibarren ikusten al duzu horrelakorik egiteko aukeraren bat?

Udal eta enpresariek interesa aurkezten badute, primeran. Baina ez dago ezer zehatzik momentuz. Hala ere, aipatu bezala, hori da joera: lokalki hasi eta lurralde historikora zabaltzea.

- Donostian bizi bazara ere, baduzu Eibarrekin konatkturik?

Bilbora ikasketak egitera joan nintzenean utzi nuen Eibar, baina eusten diot herriarekin nolabaiteko erlazio familiarrari. Tamalez, gehiago bisitatzen dut Eibar hileta elizkizunetara joateko beste edozertarako baino. Bestetik, Donostian eibartar asko dago eta eurekin harremana daukat.

66 enpresa eta 2.900 behargin biltzen ditu Donostiako Parke Teknologikoak.

Sari banaketa goizean goizetik

Goizeko 10.15 joteko ziren Arraten elkartutako lehenengo lagunek kartera poltsikotik atara eta lehenengo boletoak erosi zituztenean. Oraindik ez zegoen bero larregirik, baina sarien banaketa bero-bero hasi zen, orduantxe jaso ziren lehenengo bonboi, gaileta eta palak...

Esku hutsik Arratera ailegatu eta beherako bidean autobuseko gidariei maleteroa zabaltzeko eskatu behar izan zuen batek baino gehiagok, dvd-a, loteak, aspiradora edo bizikleta ezin baitzen gainean eraman. Gutxi izan ziren esku hutsik jaitsi zirenak, Kittonbolia, urteroko moduan, bonboi, gaileta, kamiseta, elektrodomestiko, pala, txartel-zorro eta abarrez beteta baitzegoen, eta ...eta kitto!-ko lagunak guztiak banatzeko desiatzen.

Kittonbolia zortea zirikatzeko tonbola baino gehiago da, ...eta kitto! Euskara Elkartearen proiektuari laguntzeko modua ere bada, Eibarren euskara bultzatzeko modua; hori bai, parte hartzen duen eibartarrak saria jasotzeko aukera asko ere baduela Arrateko kanpan ikusi zitekeen, batek palak, besteak kamiseta, harek dvd-a eta besteak afariaren txartela.

'ESKERRIK ASKO PARTE HARTU DUZUEN GUZTIOI'

Apirilean ekin genion joan den martitzenean banatutako opariak jasotzeari, asko dira gurekin bat egiten duten denda, enpresa eta elkarteak eta guztiei esan behar diegu eskerrik asko; eurek eskainitako laguntasunari esker Arrate eguneko Kittonbolia opariz betetzea lortu genuen eta bero-bero bertan batutako jendearen artean banatzea. Eguraldia lagun, bero larregi ere izan genuen orduren baten, baina batek baino gehiagok egindako barreek eta besteek zuten irrifarreak ikasturte berria ezin hobeto hasteko aukera eskaini digu.

Eibartarrek eskainitako laguntasunak gure egunerokotasunean egiten ditugun ekitaldietan, aldizkariaren argitaratzean eta abarrean eragin zuzena izango du. Urte osoan zehar lanean jarraituko du ...eta kitto! Euskara Elkarteak Eibarren euskara bultzatu eta indartu nahian, eta Arraten horretan lagundu duten guztiei gure eskerrik beroenak.



KiTTOnbolia

Trinkete
Errebal, 24
943 70 13 23



KiTTONbolia

Euskara Elkartea

Arrate egunean, zuen ametsak errealitate bihurtu zituzten denda, enpresa eta kirol taldeak aurkezten dizkizuegu. Aukera paregabea izan zen Arrate egunean eta, euro baten truke, eibartar gutxi geratu zen sari barik. Eibartarrok eibartarrontzat egindako tonbola berezian parte hartu zenuten guztioi, eskerrik asko!!!

- **Alfa**

- **Ansa bitxitegia**
- **Artola jatetxea**
- **Askasibar**
- **Aspe**

- **Astigarraga**
- **Astore**
- **Athletic Club**
- **Ayerbe liburudenda**
- **Azitain erretegia**
- **Azpiri saneamenduak**

- **Baglietto**
- **Basik**
- **Benicoba**
- **Burbujas y más**

- **Cadenas Iris**

- **Calefacciones Eibar**

- **Capi**
- **Dirdai bitxitegia**
- **Egaña elektrodomestikoak**
- **Eguren elektrodomestikoak**
- **Eibar Kirol Elkartea/S.D. Eibar**

- **Eibar Rugby Taldea**
- **Eibarbus**
- **Eibarko Txirrindulari Elkartea**
- **Eibarko Udala**
- **El Cantón de la Avenida**

- **Emankor taldea**
- **en boga ileapaindegia**
- **Errebal kirolak**
- **Eskarne jatetxea**
- **Eslune**
- **Esteban Oroz**

- **...eta kitto!**
- **Euskadiko Kutxa / Caja Laboral**
- **Gar Men**
- **Goien oinetakoak**
- **Gratzina**
- **Guby mutilak**
- **Guby neskak**
- **Hodei estetika**

Eskerrik asko guztion laguntzagatik

OSTALARITZA - VENDING
Zure zerbitzura
ostalaritza • enpresentzako •
erregistro eta gestio sistemak

urkotronik
25 urteurrena
Mocay
Polonia Ebeberra 14-16 • EIBAR
urkotronik@urkotronik.com



- Idoia Bergaretxe spa
- Ikusimakusi
- Industrias G. Arizaga
- Industrias Mail
- Industrias Rosi
- Iris Sport
- Irritsa
- Itxesi
- Izadi loradenda
- Izane
- J.D Arrate
- Jauregui

Jauregui

- Jaz- Zubiaurre

JAZ
JAZ-ZUBIAURRE S.A.

- Jeronimo
- Julen argazkidenda
- Kantabria jatetxea
- Kareaga bitxitegia

kareaga

- Kiñu
- Krabelin hotela
- Kros-sports
- Larramendi milar
- Laumar loradenda
- Leder
- Lide
- Mamacas
- Marian-Idoia spa
- Mega
- Mertxe gazta eta txerrikiak
- Mugika iturgintza
- Narrua
- Neure
- Orbea

ORBEA

- Pirritx eta Porrotx

Pirritx eta Porrotx

- Pitxiak
- Publiresa
- Salaberria bitxitegia
- Solera Eibarresa

VINOS SOLERA EIBARRESA

- Solera Estankoa
- Su Beroa
- Su Ta Gar
- Tress
- Tribeka

Tribeka

- Tribux
- Trinkete

- Tximeleta jatetxea
- Txokolate
- Ulmar
- Umea
- Urdanibia
- Urkotronik
- Valenciaga
- Yraolagoitia
- Zahor

zahor

- Zero
- Zurkulu

arrateko amaren jaixak09

argazkiak:
Silbia Hernandez
Leire Iturbe

Asier Serranoren kolaborazioa



Gaueko estazioa

Ez dakit berdin gertatzen zaizuen, baina uda bukaerako fetxa hauetan ohea tren geltoki bilakatzen zait. Bertatik banaka igarotzen dira tren ezberdinak: estreinako trenaren bagoietan dorre bikien hezurdurak ikusi ditzaket, minutuero akabatzen dituzten nire bihotzeko Salvador Allende guztiak eta Irakeko hare gorri-beltza zenbatzen duen jainko ateoa. Estaziotik urruntzean Beslango haur hilen oihuak entzuten dira, eta horiek ez dituzte ez Txinako uholdeek, ez Japongo lurrikarek ezta Floridako haizetzarrek ere mututzen.

Gero, oroitzapenen trena ailegatzen da ohe-estaziora, iraganeko damu eta sekretu guztiekin zamatuta. Badatoz eta badoaz beste tren gehiago ere kezka aurpegia azaltzen duten bidaiari bakartiekin. Saiatzen naiz, bizirauteko lezioa ezagutzeko aukera eskaini didaten azti nagusien berbak gogora ekartzen, Alejandrorenak, Judithenak, Mariorenak edo Brisarenak adibidez… "pozgarrixa da bizitzia"diote aho batez.

Eta azkenean, loaren trena iristen da beti bezain inpuntual.

musika

Garikoitz Mendizabal
Sosegua

Garikoitz Mendizabal txistulariak, Kepa Junkeraren ekoizpen landuaren laguntzarekin, bere ingurua eta inguruarekin pentsatutako lana kaleratu du. Musika lasaia, soseguz entzutekoa eta, bide batez, bide berri batzuk proposatzen dizkiguna. Sentimendu ezberdinak mugiaraztea helburu duen diska.



Nahixan
Nahixan

Kafe baten berotasuna neguko goiz batean, itxasora begira dagoen mahaitxo batetik. Argazkiak gisa sortzen zaizkigun poemek paisaia bat marrazten doaz, oroipenez eta bizitzaren hurbileko gertakariz jantzita. Bizitzaren bidea markatzen dituzten horiez. Nahixan, goizaldean, portuko argi-ilunetan dindilin urdurian dabiltzan txalupatxoak bezalakoa da.



Joan Mari Irigoien
Haragiaren gauak eta egunak

Orbetarren bigarren zatiarekin datorkigu Joan Mari Irigoien idazlea honakoan. Eleberrian protagonisten nortasun eta berezitasunak ezagutuko ditugu, bakoitzaren ametsak eta ekintzak, eta, etxeko gorabeheren bitartez, XX. mende hasieratik 36ko gerrara bitarteko mugimendu eta gertakarien lekuko bihurtuko gara.

Unai Elorriaga
Londres kartoizkoa da

Berrikuntza osoa eman dio Elorriagak bere obrari, bai gaiaren, bai idazkeraren aldetik, baina bere erroei eutsiz: itxurazko soiltasun guztiz landua, literatur lana erlojuaren doitasuna duen artefaktua ere izatea, gizon-emakumeen beldur eta sentimendu sakonetara heltzeko gaitasuna.

literatura

Eibar KEk 2012ra arteko plana aurkeztu du

HAMAR LERRO ESTRATEGIKO DITUEN PLANA AURKEZTU ZUTEN herenegun eguerdian Eibar KEko Administrazio Kontseiluko ordezkariek. 2012-ra arte taldearen motorra izango den plan hori burutzeko, lehenengo taldearen kirol arloan Kontseiluarekin elkarlanean jardungo duen kanpoko batzordea sortuko du. Aldi berean, Deba bailara osorako kirol erreferentea izateko ahalegineean jarraituko dute eta entrenamenduetarako belar-zelai bat egiteko asmoa dute. Plan horren sormen prozesuan 80 bat lagunen parte hartzea izan dute lagungarri eta, aipatutako hamar lerro estrategikoen adarrei jarraituz, 50 proiektutan izango dute burutze fasea.

Eibar, Athletic, Kainabera eta Elorrioko ordezkariak partidu benefikoaren aurkezpenean.

Eibar-Palencia domekan

2. B mailako talde indartsuenetakoa izaten da orokorrean Palencia eta hainbat urte daramatza maila horretan. Orain arte jokatu dituen partidu biak berdindu ditu Gaztela-Leongo taldeak (Compostelarekin husna Galizian eta etxean bana Lugorekin). Partidua domekan jokatuko da, 18.00etan hasita

Athletic 3 Eibar KE 1

Martitzen arratsaldean jokatutako neurketan, Superligako Athletic eta Eibar KEk neurtu zituzten indarrak, bizkaitarrak 3-1 irabaziz. Partidua benefikoa izan zen, Kainabera GKEk Nikaraguako Monzonte herrian etxebizitzak egiteko ahalegina-ri laguntzeko asmoz. Eurekin batera, Elorrio Kirol Taldeak ere parte hartu du partiduaren antolaketa lanetan.



Behobia-Donostia gero eta erosoago

GERO ETA OIARTZUN HANDIAGOA DUEN proba ahalegintzen da ahal duen neurrian gauzak errazten eta, iazken edizioan izena emandakoen %10 ez zela irteeran agertu ikusita (aurretik asko kanpoan geratu zenean, toki barik), lasterketaren web orriaren bitartez eta doan ahalbidetu du parte hartu behar ez duenak bere izena beste batengatik aldatzea. Horretarako, www.behobia-sansebastian.com-eko "nere izen emateak" atalean sartu beharko da.

Concepto-Createch, areto-foballeko izen berria

HIRU TALDE KALERATUKO DITUZTE DENBORALDI BERRIAN ERE GipuzSala eta CD Debabarrena artean, baina lehenengo taldeak izena aldatuko du: oraingoan Concepto-Createch deituko da eta B Nazional mailan jardungo du. Iaz 3. postuan sailkatu zen talde nagusiena eta igotzeko borrokatu zuen. Bigarren taldeak Asador Azitain izenarekin jarraituko du, Gipuzkoako 1. mailan. Eta, iaz moduan, jubenil mailako beste talde bat ere kaleratuko dute. Horrez gain, Eibar KErekin duten elkarlanari esker, alebin mailako jokalariak ere izango dira taldean.

Bihar, bestalde, talde nagusiaren aurkezpen gisara, hiruko torneoa jokatuko da Elgoibarko Olaizaga kiroldegian, 17.00etan hasita. Concepto, Goierri eta Aretxabaleta izango dira lehian.

Hiru talde osatu dituzte Ipuruako gimnastek

ASTELEHENEAN HASIKO DITUZTE KLASEAK GIMNASIA ERRITMIKOKO gazteenek, hau da, 4 urtetik aurrerakoak, Ipuruako taldearekin. Interesatuta dauden guztiak gimnasiaipurua@hotmail.com helbidean jaso dezakete informazio gehiago edo, bestela, Kiroldegitik pasatuta. Federatutako taldeei dagokienez, entrenatzen dihardute dagoeneko eta denboraldi berrirako hiru talde osatu ditu Ipuruak: gaur egun Espainiako txapelduna den 1. mailakoa, senior mailakoa eta infantilekoa.

Arrateren debuta bihar Logroñon

ASOBAL LIGAK ASTEBURU HONETAN HASIKO DU DENBORALDI BERRIA eta Arratek Logroñon jokatu beharko du 1. jardunaldiari dagokion neurketa, bertako Naturhouseren aurka. Partidua arratsaldeko 20.00etan hasiko da eta hor ikusi ahal izango da azken hilabetean zenbateraino egokitu diren taldera zazpi jokalari berriak. Herenegun jokatutako aurredenboraldiko azken partiduan, bestalde, Arratek 26-23 irabazi zion Ohorezko B mailako Barakaldori. Cutura, Marc García eta Voncina izan ziren taldeko onenak, aurredenboraldi polita egin duen Harsanyi berriarekin.


Asobaleko Arratek zazpi aurpegi berri izango ditu denboraldi honetan.

Simon Aldazabal igoeraren XIV. edizioa domekan

DOMEKA GOIZEAN, ARRATEKO KOFRADIAREN EGUNEAN, jokatuko da Simon Aldazabal antxitxiketaldiaren edizio berria. Urtero legez, 5,53 kilometroko herri-krosa Toribio Etxebarria kaletik irtengo da (proba antolatzen duen Klub Deportiboaren aurrean) eta Arrateko Santutegiaren ondoan amaituko da. Ohikoari jarraituz, sari nagusi honek beste omendu bat izango du aurten: Alberto Zabala atleta-ohia izango da aurtengoa.

Proba goizeko 10.30etan hasiko da eta izen-ematea ordubete lehenago zabalduko Deportiboko lokaletan. Sariei dagokienez, gizonezkoen zein emakumezkoen arteko bost lehenak jasoko dituzte eta, horretaz aparte, garaikurra ere izango da beterano, junior eta Eibarkoen artean 1. postuan sailkatutakoentzat. Bestalde, 45 euroko sari berezia izango da orain arteko markak hobetzen dituztenentzat: gizonezkoen kasuan, 25 minutu eta 4 segundokoa da bera; eta emakumezkoenean, 32 minutu eta 54 segundokoa.

50 parte-hartzaile iaz

Emakumezkoen gaur egungo marka Nerea Amilibiak iaz ezarritakoa da. Berak irabazitako lasterketan, Mari Karmen Iriarte eibartarra bigarrena izan zen eta Esther Pageik eta Ane Ziaranek 4. eta 5. tokietan amaitu zuten. Bost emakumezko eta 45 gizonezko izan ziren iazko edizioan eta Walter Becerra sestaoarra izan zen azken maila honetako irabazlea. 28 minutu eta 10 segundo behar izan zituen garaileak eta Jose Ramon Fernández izan zen Eibarko onena, 4. postuan. Bestalde, Fernando Serrano atleta beteranoak omenaldia jaso zuen hamairu edizioetan parte hartzeagatik.

Deportiboaren aurretik irtengo dute parte-hartzaileek goizeko 10.30etan.

Azken denboraldiko infantil mailako lehen taldea.

Untzagak Eibartarrak foball taldearen Eguna hartuko du bihar

KLUBAREN EGUNA OSPATUKO DU BIHAR, GOIZ ETA ARRATSALDEZ, gure herriko foballean bide luzea egin duen Eibartarrak taldeak. Horretarako, hainbat ekitaldi antolatu dituzte eta, horrela, goizean, 10.30etatik aurrera, giro berezia izango da Untzagan; bertan ezarriko den karpan edariak eta txitxi-burruntziak eskainiko dira. 11.00etan hasi eta 13.30ak arte, bestalde, foball-3ko torneoa jokatuko da Untzagan egingo diren hiru mini-zelaietan. Edozeinek hartu ahal izango du parte eta sariak egongo dira hiru talde onenentzat eta goleatzaile nagusiarentzat. Arratsaldean jarraituko du ekitaldiak, giza-futbolin bat osatuz eta penaltiak jaurtitzeko prestatuko den txosna batekin.

Pelota eskolaren denboraldi berria

EGUENEAN HASI ZUTEN IPURUA KIROLDEGIKO FRONTOIAN DENBORALDI BERRIA Klub Deportiboko pelotariek. Egun horretan aurkeztu ziren begiraleak eta baita ikasleak ere; dena dela, izena eman nahi dutenek oraindik badute aukera, 2002an edo lehenago jaiotakoetatik hasita. Iaz 25 ikasle izan ziren eskola horretan, aurten ere jarraituko dutenak asteburuetan eskola txapelketetan parte hartzeko. Entrenamenduak martitzen eta eguenetan egingo dira (17.00etatik 19.00etara).

BAMETSA BAR
Toribio Etxebarria, 4

San Andres Gozotegia
tartak
enkarguak
etxera
Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73

Juan San Martin bekako irabazlea izan zen Idurre Alonso 2004ean. Bost urteren ostean, 'Literaturaren irakaskuntza Hego Euskal Herriko Batxilergoan. Eduki kontzeptualetatik gaitasun komunikatiboetarako bidean' argitaratu du filologo eibartar honek EHUren bitartez.

IDURRE ALONSO, filologoa:

"Ez dago garbi zertarako irakasten den literatura"

- Zelan dago gaur egun literaturaren irakaskuntza Hego Euskal Herrian?

Egoera nahiko kezkagarrian. Euskal literaturaren kurrikulumean helburu nagusi bi aurki daitezke: literaturaren historia eta komunikazio gaitasunen garapena. Alde batetik, historia ez da lantzen ia; narrazioa bakarrik. Bestetik, komunikazio gaitasunari dagokionez, ikasleei urtean liburu bi irakurtarazten zaie eta ez da ezer gehiago lantzen. Ez da inolako sormenik lantzen, kontrola egiten da liburua irakurri dutela jakiteko eta ezer gehiago.

- Zein izango litzateke ikerketa honetatik atera duzun ondorio garbiena?

Ez irakasle, ez Hezkuntza Legeak ez daukatela batere garbi zertarako irakasten den literatura. Hausnarketa sakona egin beharko litzateke horren gainean eta benetan euskal literatura zertarako irakatsi nahi den zehaztu eta jakin. Alferrik gabiltza bestela.

- Euskara eta literatura irakasgai berean ematen dira gaur egun. Hobe da banatzea edo elkarrekin ematea bideragarria dela uste duzu?

Posible da biak elkarrekin ematea; gainera, literaturarekin posible da hizkuntza lantzea. Hala ere, irakasgai honi astean hiru ordu eskaintzea gutxiegi da. Euskararen maila nahiko txarra da ikasleen artean eta euskara irakasteari eskaintzen zaio denbora gehien irakasgaiaren barruan, horrela, literatura bigarren mailan kokatzen da eta bere ikaskuntza mugatua bihurtzen.

- Nolatan bururatu zitzaizun horrelako tesia egitea?

Filologia ikasketak amaitu nituenean ordezkapena egin nuen ikastetxe batean irakasle bezala. Klaseak ematen nituenean konturatu nintzen zeinen aspergarria zen irakasgaia, bai ikasleentzat, bai niretzat; inork ez zeukan argi zertarako zegoen irakasgaia. Autore ezagunak, eurek egindako lanak eta horrelakoei buruz ikasten zituzten eta besterik ez. Oso aspergarria iruditu zitzaidan.

- Nolakoa izan da ikerketa?

Luzea eta gogorra; izan ere, urte asko eman ditut lanean. Gaia zehazten hiru urte eman nituen, zein metodologia erabili aztertzen. Gogorrena ikastetxeetara joatea izan zen, lanetik irten eta kilometroak eta kilometroak egin behar bainituen. Hego Euskal Herriko 21 ikastetxetan eta 825 ikasle eta euren irakasleekin egon naiz.

Expoadintsu argazki lehiaketarako azken egunak

HILABETE HONEN AMAIERAN, IRAILAREN 29-AN ETA 30-EAN ETA URRIAREN 1-EAN Expoadintsu Debabarreneko nagusi eta beren familientzako azoka hartuko du Astelena frontoiak eta, horren harira, antolatzaileek eta Klub Deportiboak argazki lehiaketa ipini dute martxan. Irailaren 14an (astelehenean) amaituko da lehiaketan parte hartzeko epea eta argazki munduarekiko zaletasuna duen edonork dauka lanen bat aurkezteko aukera. Lehiaketara aurkeztutako lanentzat gaia, berriz, pertsona nagusiak eta eurekin lotutako kontuak izango da. Lanak Debegesako egoitzan eskura eman edo postaz bidali daitezke (Azitain industrialdea, 3 bis).

Hainbat sari

Sari banaketa ekitaldia, berriz, Astelena frontoian izango da, irailaren 29an, Expoadintsu 2009 azokaren lehenengo egunean. Hainbat sari banatuko dituzte: batetik, nagusiekin lotuta dagoen Expoadintsu Saria (100 euroko lau sari) eta, bestetik, Eskualdeko saria (90, 80 eta 60 euroko sari bana).

Saritutako lanak zein jasotakoen artean aukeratutako beste batzuk irailaren 25etik urriaren 9ra Untzaga jubilatu etxean ikusgai ipiniko dituzte, bertako erakusketa aretoan.

Mateo Guilabert



Iraileko argazki erakusketak

KLUB DEPORTIBOKO ARGAZKILARITZA BATZORDEAK HIRU ERAKUSKETA BERRIREKIN ekin dio ikasturteari. Iraila osoan zehar Toribio Etxebarria kalean dagoen Depor tabernan Kataluniako Argazkilaritza Elkarteko Dones taldearen argazkiak ikusteko aukera izango da. Portalea tabernan, berriz, Pedro Moraren argazkiak ikus daitezke. Eta Bilboko Beer House-n (Deustun) Mateo Guilaberten argazki erakusketa dago martxan.

Kezka dantza eskolarako izen-emateak

KEZKA DANTZA TALDEAN EUSKAL DANTZAK IKASTEKO 2009-10 ikasturteko matrikulatze epea astelehenean, hilaren 14an zabalduko da. Interesa dutenek irailaren 14an eta 15ean eman dezakete izena, Portalean (3. solairuan), 18.00etatik 20.00etara. 6 urtetik gorako ikasleek eman dezakete izena. Bestalde, helduentzako dantza ikastaroetarako izen-ematea ere ordutegi berean egingo da.

6 urtetik gorako ikasleek eman dezakete izena Kezkan. / Jose Valderrey

Galiziako dantzen ikastaroa

AZKEN URTEOTAKO MARTXARI JARRAITUTA, As Burgas Galiziako Kultur Etxeak dantza tradizionalak ikasi nahi dituenarentzat ikastaroa antolatu du, Galiziako Xuntaren laguntzarekin. Ikastaroak 15 eguneko iraupena izango du eta irailaren 16an edo 17an hastekoa da. Interesa dutenek 636523807 telefono zenbakira deitu dezakete (Montse).

Asteburu osoa Folkez Blai

GAUR ARRATSALDEAN HASI ETA DOMEKARA ARTE Folkez Blai jaialdiak hainbat talderen kontzertuak zein folk musikaren inguruan antolatutako tailerrak eskainiko ditu Ermuan. Tailerrek osatzen dute, hain zuzen, edizio honetako berritasun nagusiena: Galiziako gaita, whistle-a, bibolina, uilleann pipe-a, bouzuki-a, gitarra zeltiarra eta txalaparta joten ikasteko aukera izango da aipatutako tailerretan. Kontzertuei dagokienez, berriz, bertakoak diren Nemon eta Flipin Folk taldeekin batera estatutik zein atzerritik ailegatutako beste batzuek jardungo dute. Informazio guztia www.myspace.com-festivalfolkezblai helbidean aurkituko duzue.

laburrak

HANKAMOTSAK BERTSO ESKOLA
Datorren eguenean, hilaren 17an ekingo dio ikasturte berriari Hankamotxak bertso eskolak. Arrate Kultur Elkartean batuko dira, 21.30etan eta interesa duen edonor bertara gerturatu daiteke, informazio bila. Aipatutako egun eta orduan nagusien mailako bertso eskola jarriko da abian eta ikasturte osoan eguenero, toki eta ordu berean batuko dira bertso eskolakoak. Informazio gehiagorako www.hankamotxak.eu webgunera jo daiteke.

ZINEMALDIA COLISEORA
Donostiako Zinemaldiko pelikula bat Coliseoan ikusteko aukera izango da, Udaleko Kultura sailak eta Zinemaldiko antolatzaileek lortutako akordioari esker. Irailaren 21ean izango den emanaldian Japoniako filma bat emango dute, konputagailu bitartezko grafikoekin eta 3-D animazioduna. Ikasleentzat bereziki antolatutako emanaldia izango da.

PINTURA ETA MARRAZKI IKASTAROAK
Arrate Kultur Elkarteak pintura eta marrazki ikastaroei ekingo die ikasturte honetan ere. Marrazki tailerra, eredu biziarekin, irailaren 2an hasi zen eta uztailera bitartean iraungo du eta pintura tailerra, berriz, urtarrilaren 1etik aurrera emango dute. Tailerren inguruko informazioa jasotzeko edo izena emateko Maite Arriaga irakaslearekin berba egin daiteke, 6622053933 edo 943821353 telefono zenbakira deituta.

URKIZU, 7 ☎ 943 82 04 94 / 943 12 11 20 Faxa: 943 12 11 40
uthemek@uthemek.com
UTHEMEK
UTILES Y HERRAMIENTAS PARA EL MECANIZADO, S.L.
SPK- Zeramika, silizioa
ISCAR - Trontzaketa eta fresadorarako erreminta bereziak
ROY - Diamante eta boraxezko harriak

publi resa
- Pin-ak
- Metxeroak
- Kamisetak
- Boligrafoak...
PUBLIZITATE ARLOKO eta ENPRESETAKO OPARIAK
Armagin 3 - behea
☎ eta faxa: 943 70 14 97 Publi.resa@euskalnet.net

Jaiak domekan jarraituko du Arraten

Paella lehiaketako parte-hartzaileek euren abileziak erakusteko aukera izango dute. / Leire Iturbe

AURTENGO ARRATE EGUNEKO PROTAGONISTA NAGUSIENETAKOA, duda barik, egun osoan berotu zuen eguzkia izan zen. Eguraldia lagun, goizean goizetik Arrateraino igotakoek zein bezperatik zelaian batutako lagunek ederto igaro zuten eguna. Aurtengo programazioa bezperan hasi zen, arratsaldean ospatutako meza eta salbearekin. Ondoren, eta ohiturari jarraituta, Kantabria jatetxeak berriz ere jendez gainezka egin zuen …eta kitto! Euskara Elkarteak antolatutako bertso afarian: Maialen Lujanbio, Angel Mari Peñagarikano, Andoni Egaña eta Sebastian Lizasok saio polita eskaini zuten, Asier Ibaibarriaga gai-jartzailearen aginduetara eta, bertsoak ez ezik, 'seguidilla'-ren bat edo beste ere entzuteko aukerarik ez zen faltan izan. Eta zer entzunik ere izan zen gau osoan, txosnek antolatutako rock kontzertuetan zein ondorengo karaoke saioan.

Arrate egunean, berriz, meza nagusiak eta ondorengo prozesioak eibartar mordoa batu zituen eguerdi aldean. Kezka dantza taldekoek, berriz, saio ikusgarria eskaini zuten: Arrateko Amari ezpatadantza eskaini ondoren, zelaian Arrateko ezpatadantza eta trokeo-dantzaren hiru piezak dantzatu zituzten. Azken hauetan, gainera, lau gonbidatu berezi izan zituzten bakarlari lanetan: aurten Arrateko dantzarien kofradian sartu diren kide berri biak (Aritz Ibañez, Iruñeko Duguna taldeko zuzendaria eta Garikoitz Otamendi, Añorgako Arkaitz dantzari taldekoa) eta aurretik ohorezko kofradiakide diren Mikel Legorburu eta Egoitz Krutxaga.

Domekan, Kofradia Eguna

Arrateko Amaren eguna igaro berri, asteburuan haren omenezko jaiak jarraipena izango du, Kofradia eta baserritar jubilatuen egunean. Domeka goizean ekingo diote egitarauari, 10.30etan, Simón Aldazabal XIV. Antxitxiketaldiarekin. Aurten Alberto Zabalari omenaldia egingo zaio lasterketan. Parte hartzaileak Klub Deportibotik irten eta Arrateraino igoko dira, Orbeko bidetik. 11.00etan, berriz, santutegian Meza Nagusia ospatuko da, Gorrotxategi eta Narbaiza bertsolarien parte-hartzearekin. Meza ostean, aurreskua dantzatuko dute Kezka dantza taldekoek eta, ondoren, prozesioa egingo da, Usartza Txistularien Bandak lagunduta.

Antxitxiketaldia, meza nagusia, pelota partiduak, paella lehiaketa, jubilatuentzako bazkaria eta idi-probak domekako egitarauan

Eguerdian, Klub Deportiboaren eskutik pelota partiduak jokatuko dira eta ordu berean, baina zelaian, paella lehiaketa hasiko da (sariak 14.00etan banatuko dituzte). 12.30etan herri kirolen txanda izango da eta, ondoren, 14.30etan jubilatuentzako bazkaria antolatu dute, Krabelin jatetxean, trikitilari eta bertsolariek girotuta. Bazkal ostean baserritar nagusiei opariak banatuko dizkiete eta, eguna biribiltzeko, 17.30etan idi probak hasiko dira.

Klub Deportiboko pelotarien arteko neurketak jokatuko dira eguerdian. / Leire Iturbe

Idi-probekin amaituko da Kofradia Eguneko egitaraua. / Leire Iturbe

EUSKARAREN TXOKOA

EUSKARA ZENBATERAINO IKASTEN DUTE ETXETIK ERDALDUN DIRENEK?.

EHUko Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Sailean abian den ikerketa berri bateko lehen emaitzen arabera, etxetik erdaldun izanda euskaraz eskolatzen diren ikasleek etxetik euskaldun diren ikasleen pareko garapena egiten dute euskaraz. Etxetik gaztelaniadunak izanik, D ereduan eskolatuta euskara ikasten duten haurren euskararen eta gaztelaniaren garapena aztertzeari ekin zion 2002an Itziar Idiazabalek zuzentzen duen EHUko Hizkuntzaren Jabekuntza eta Erabilera ikertaldean (www.elebilab.com). Ikertaldeak hogei bat urteko ikerketa-eskarmentua dauka haurtzaroko elebitasunaren esparruan. Oraingoan, ahozko ipuin-kontaketa erabili dute hizkuntzaren erabilera mota gisa, ezaugarri komunikatibo-linguistiko propioak baititu. Euskara bigarren hizkuntza dutenen 5 urtetik 8 urtera ikusitako garapena ikaragarria da ipuina hasi eta amai kontatzerako orduan.

laztanak emoten...

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.

Zorionak, URKO eta GARAZI Arakistain Mendizabal, bixar urtebete egingo dozuelako. Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, LUCIO eta ANTONIA. Bixar oso ondo pasatzia opa deutsuegu zuon urrezko ezkontzetan. Famelixa guztiaren eta, batez be, seme-alaben eta billoben partez.

JAIOTAKOAK

- **Maule Lazarobaster Arrizabalaga.** 2009-VIII-26.
- **Adil Afassi.** 2009-VIII-27.
- **Olatz Plazaola Forner.** 2009-VIII-30.
- **Ander Peñafiel Agurto.** 2009-VIII-30.
- **Irati Agirreazaldegi Bereziartua.** 2009-IX-3.



Zorionak, MARKEL, gaur urtia betetzen dozu-eta. Laztan haundi bat etxeko guztien partez.



Zorionak, XABIER, atzo urtebete egin zendualako. Famelixa guztiaren partez.

HILDAKOAK

- **Dario Ortega Fernández.** 79 urte. 2009-VIII-1.
- **Nardi Pereira Souto.** 49 urte. 2009-VIII-1.
- **Eugenio Uzkudun Garitagoitia.** 61 urte. 2009-IX-6.
- **Mª Teresa Negruela Gómez.** 86 urte. 2009-IX-6.
- **Florencia León Barea.** 95 urte. 2009-IX-8.

DENBORAPASAK

SUDOKUA

7	8		9			2		
3				1				
		9					8	7
6					1		5	
	7					4		2
4	3		5		8			
	4		7	9				
8			3			5		
9	5	3				7	6	

9	7	5	3	2	1	4	8	6
8	4	3	5	6	9	7	1	2
1	2	6	4	7	8	5	9	3
5	6	9	2	8	4	3	7	1
3	1	2	9	5	7	6	4	8
4	8	7	6	1	3	9	2	5
6	5	4	8	9	2	1	3	7
2	3	1	7	4	5	8	6	9
7	9	8	1	3	6	2	5	4

AURREKOAREN EMAITZA

EMAKUME ETA GIZON
MODA
Valenciaga
KONFEKZIOAK
☎ 943 20 22 33 ZULOAGATARREN, 7

Zerbitzu osatuak Eibar eta eskualdeko osasun zentru eta etxeetan
Gipuzkoa, Espainia eta nazioartetik egiten dira trasladoak
NTRA. SRA. DE BEGOÑA
EHORZKETA-BEILATOKIA
• KOROAK • ESKELAK • HILARRIAK • AGIRIAK
BULEGOAK ETA ERAKUSKETA: Txaltxa-Zelai, 4-6 - behea, ezk.
ZERBITZU IRAUNKORRA: ☎ 943 201095 Faxa: 943 202564

horoskopoa

ARIES
Gehiago lasaitu beharko zinateke eta ez estutu hainbeste gauza txikiengatik. Behar denari garrantzia ematen ikasi behar duzu.

TAURUS
Konturatu gabe, egunerokotasunean murgilduta bizi zara berriz ere, nahiz eta oporretatik bueltan horri alde egiten saiatuko zinela esan.

GEMINI
Proiektu berriak izango dituzu. Erakargarriak eta pozez zoratzen ipiniko zaituztenak. Egoera aprobetxatzen saiatu zaitez.

CANCER
Iragana ezin da ezabatu: aurrera egin eta datorrenari ondo eutsi. Bolada txarretan ere ikasi daiteke zerbait, sasoi onetan baino gehiago agian.

LEO
Espero ez bazenuen ere, maitasun berria iritsiko da zugana. Egia esan, horrelakoak inoiz ez dira espero, hori da bere magiaren gakoetariko bat.

VIRGO
Zergatik kostatzen zaizu hainbeste musu bat ematea? Pekatua bailitzan hartzen duzu. Ez da egongo bada gauza sanoagorik!

LIBRA
Gauzei zure izena ipintzen hasi beharko zara; horrela jarraituz gero, ezer barik geratuko zara. Nolako lapurrak dituzun inguruan!

SCORPIUS
Beti erdibidean geratzen zara, ez alde batera, ez bestera. Inori arrazoia eman barik. Ba orain heldu zaizu bustitzeko sasoia.

SAGITTARIUS
Abesti bat buruan bueltaka izango duzu etengabe. Ez da nolanahiko abestia izango, barnean gordetzen duen mezua garrantzitsua baita.

CAPRICORNIUS
Lagun bati faborea eskatu behar diozu eta ez dakizu nola egin. Gogo onez egingo dizu fabore hori; gainera, zurekin zorretan dago oraindik.

AQUARIUS
Noiztik ez zara gauean irtetzen? Behingoz gorputza pixkat astintzea behar duzu, bestela gogortuta geratuko zara-eta. Ondo pasa ezazu!

PISCIS
Azken aldian dena ondo irtetzen zaizu eta joera horrek berdin jarraituko du datorren astean. Hori bai, ez eskatu gehiegi ere.

Zapatua 12

EIBARTARRAK EGUNA

10.30.- Foball-3ko torneoa. Karpa izango da. Untzagan.
18.00.- Giza-futbolina eta penaltiak jaurtitzeko barraka.

BIEN APARECIDA JAIAK

17.30.- Toka, igel-toka eta 'cuchillo' txapelketak.
20.00.- Sardina-jana. Kantabriako Etxeak antolatuta. Ipurua bolatokian.



Domeka 13

KOFRADIA EGUNA

10.30.- Simón Aldazabal XIV. Antxitxiketaldixa. Alberto Zabalari omenaldia. Klub Deportibotik irten eta Arrateraino (Orbeko bidetik).
11.00.- Meza Nagusia Gorrotxategi eta Narbaiza bertsolariekin. Meza ostean, aurreskua Kezka Dantza taldearen eskutik. Ondoren prozesioa Usartza Txistularien Bandak lagunduta.
12.00.- Pelota partiduak, Klub Deportiboak antolatuta.
12.00.- Paella lehiaketa.
12.30.- Herri kirolak.
14.00.- Paella lehiaketaren sari banaketa.
14.30.- Jubilatuentzako bazkaria, Krabelin jatetxean, trikitilari eta bertsolariekin. Baserritar nagusiei opariak banatuko zaizkie.
17.30.- Idi probak.

ikastaroak

- Kezka Dantza Eskola.
Nork: 6 urtetik gorakoek.
Izen-ematea: Irailaren 14an eta 15ean, 18.00etatik 20.00etara Portalean (3. solairuan).
Informazioa: 943530440 telefono zenbakian.

- Hankamotxak Bertso Eskola.
Nork: LH eta DBHko ikasleek zein helduek.
Izen-ematea eta informazioa: Arrate Kultur Elkartean

- Debako Arte Eskola.
Izen-ematea eta informazioa: 943191804 telefono zenbakian edo www.debarte.net helbidean.

- Afariketan.
Izen-ematea: Irailak 21 eta 22an, 16.00etatik 18.00etara, ludoteketan (Amaña, Urki eta Urkizun). Irailak 23, 24 eta 25ean, 10.00etatik 13.00etara, Portalean.
Informazioa: Astixan (943206231 telefono zenbakian).

- AEK Euskaltegia.
Izen-ematea eta informazioa: Irailaren 28ra arte, AEK Euskaltegian (943201379 telefono zenbakian).

- Udal Euskaltegia.
Izen-ematea eta informazioa: Irailaren 28ra arte, Udal Euskaltegian (943700912 telefono zenbakian).

Herriko euskaltegi bietan matrikulatzeko epea zabalik dago hilaren 28ra arte.

- Eibarko Helduen Heziketa.
Izen-ematea eta matrikulazioa: Irailaren 16ra arte, Eibarko C.E.P.An (Isasi, 39an, 943208856 telefono zenbakian).

- Esperientzia Eskola.
Izen-ematea eta informazioa: Urriaren 23ra arte, nagusiak@debegesa.com helbidera idatzita edo 943820110 telefonora deituta.

- Galiziako dantza ikastaroa.
Hasiera: Irailaren erdialdera As Burgas Galiziako etxean. Iraupena: 15 egun. Izen-ematea eta informazioa: 636523807 telefono zenbakian (Montse).

bekak

VIII. JUAN SAN MARTIN BEKA.
Ikerketa esparrua: Artea. Eskaerak eta informazioa: Urriaren 11ra arte, Pegoran edo Portalean.

GOTZON GARATE BEKA 2009.
Ikerketa esparrua: Elgoibarko Toponimia. Eskaerak eta informazioa: Elgoibarko Udaleko Euskara Saila (943 74 43 66 euskara@elgoibar.org)

eguraldia (EUSKALMET.NET)

erakusketak

– Irailaren 20ra arte
JEAN CLAUDE-N GAUTENA erakusketa.
Topalekuan.

– Irailaren 30era arte
DONES elkartekoen argazki erakusketa.
Klub Deportiboan.
PEDRO MORAren argazki erakusketa.
Portalea tabernan.
MATEO GUILABERTen argazki erakusketa.
Deustuko Beer House tabernan (Bilbo).

lehiaketak

- Arrateko Jaietako Paella Lehiaketa. Noiz eta non: Irailaren 13an, 12.00etan, Arrateko zelaian. Izen-ematea: Egunean bertan, 11.30etan, Arrateko zelaian.

- Indalezio Ojanguren XXII. Argazki Lehiaketa. Lanak aurkezteko epea: Urriaren 10era arte. Informazioa: Pegoran.

- Asier Errasti Eibarko X. Laburmetraia Jaialdia. Lanak aurkezteko epea: Urriaren 9ra arte. Informazioa: Pegoran.

- Expoadintsu 2009rako Argazki Lehiaketa. Gaia: Pertsona nagusiak. Lanak aurkezteko epea: Irailaren 14ra arte, Debegesan.

- Sanandresak 2009 kartel lehiaketa. Lanak aurkezteko epea: Urriak 22ra arte. Informazioa: Pegoran.

farmaziak

11, barixakua
EGUNEZ **Urizar** (J. Etxeberria, 7)
GAUEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)

12, zapatua
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
GAUEZ ***Alberdi*** *(Zubiaurre, 9)*

13, domeka
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
GAUEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)

14, astelehena
EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
GAUEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)

15, martitzena
EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
GAUEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)

16, eguaztena
EGUNEZ **Urizar** (J. Etxeberria, 7)
GAUEZ ***Ugarte*** *(Sta. Zezilia, z/g)*

17, eguena
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
GAUEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)

18, barixakua
EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
GAUEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)

diru-laguntzak

UMEAK ESKOLARA 2009. Onuradunak: Eibarko erroldan dauden 1994ko urtarrilaren 1etik 2003ko abenduaren 31ra bitartean jaiotako umeak. Zenbatekoa: Gehien jota 60'10 euro ume bakoitzeko. Informazioa eta eskaerak aurkeztea: Irailaren 1etik abenduaren 1era arte. Pegoran.

DIRU-LAGUNTZAK IKASLEEI.
Onuradunak: Irakaskuntza arautuko edo lanbide prestakuntzako ikasleei zuzenduta (1984ko urtarrilaren 1etik 1993ko abenduaren 31ra bitartean jaiotakoak). Zenbatekoa: Gehien jota 60'10 euro gazte bakoitzeko. Informazioa eta eskaerak aurkeztea: Irailaren 1etik abenduaren 1era arte. Pegoran.

KOADRILENTZAKO LOKALAK.
Eskaerak eta informazioa: Irailaren 30era arte, Pegoran.

JUBILATU ETXEENDAKO.
Eskaerak eta informazioa: Irailaren 18ra arte, Pegoran.

telefono jakingarriak

SOS deiak *112*
Pegora *010*
Udaletxea *943 70 84 00*
Portalea *943 70 84 39*
Udaltzaingoa *943 20 15 25*
Mankomunitatea *943 70 07 99*
Debegesa *943 82 01 10*
KIUB *943 20 38 43*
Epaitegia *943 03 34 00*
Iberdrola *901 20 20 20*
Naturgas *902 12 34 56*
DYA Larrialdiak *943 46 46 22*
Gurutze Gorria *943 22 22 22*
Mendaro osp. *943 03 28 00*
Anbulategia *943 03 25 00*
Torrekua *943 03 26 50*
Errepideak *902 11 20 88*
Ertzaintza *943 53 17 00*
Eusko Tren *902 54 32 10*
Pesa *902 10 12 10*
Taxiak *943 20 30 71*
..... *943 20 13 25*
Alkohol.Anon. ..*629 14 18 74*
Al-Anon/Alateen *650 26 59 63*

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Egunero: 07.30, 08.50, 10.30, 13.30, 14.30 eta 18,30. Laneguna: 07.00, 08.00, 15.30 eta 21.05. Jaieguna: 09.30, 13.30, 18.30 eta 20.30. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunero: 12.30, 15.00, 17.30, 19.30 eta 20.45. Laneguna: 07.00, 09.30, 13.30, 14.30 eta 18.30. **EIBAR-BILBO.** Laneguna: 06.40etatik 20.40etara orduro. Zapatua eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara orduro. **BILBO-EIBAR.** Laneguna: 06.40etatik 21.40etara orduro. Zapatua eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara orduro. **EIBAR-GASTEIZ.** Egunero: 06.15, 10.45, 14.45 eta 18.45. Zapatua: 06.45, 10.45, 14.45 eta 18.45. Jaiegunak: 08.45, 10.45, 14.45, 16.45, 18.45 eta 20.45. **GASTEIZ-EIBAR.** Egunero: 08.30, 12.30, 16.30 eta 20.30. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 16.30, 18.30 eta 20.30. **EIBAR-IRUÑA.** Laneguna: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.30 eta 18.00. **IRUÑA-EIBAR.** Laneguna: 10.45 eta 18.00. Jaiegunak: 10.45 eta 21.00. **EIBAR-ARRATE.** Zapatua: 14.00. Domeka eta jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Zapatua: 14.30. Domeka eta jaiegunak: 09.30, 10.30, 11.30, 13.30 eta 18.30. **EIBAR-ELGETA.** Laneguna: 13.30 eta 20.20. Domeka eta jaiegunak: 12.00 eta 19.00. **ELGETA-EIBAR.** Laneguna: 14.00 eta 20.50. Domeka eta jaiegunak: 12.30 eta 19.30. **ERMUA-MENDARO.** Astelehenetik ostiralera: 06.20, 07.10, 07.50 (07.50etatik 22.20etara orduerdiro). Zapatua-Domeka-Jaiegunak: 06.50-etik 21.50-era orduro. **MENDARO-ERMUA.** Laneguna: 06.55etatik 21.55etera orduerdiro. Zapatua-Domeka-Jaiegunak: 07.55-etik 21.55-era orduro.

tren ordutegiak

EIBAR-BILBO. Lanegunak: 06.13etatik 21.13etara orduro. + 10.55 eta 21.38. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 05.57etatik 20.57etara orduro. + 09.34 eta 20.34. **EIBAR-DURANGO.** Egunero: + 22.18. **EIBAR-DONOSTIA.** Lanegunak: 06.13etatik 20.13etara orduro. + 10.55 eta 21.38. **DONOSTIA-EIBAR-ERMUA.** Lanegunak: 05.47etatik 20,47etara orduro.

etakitto.iragarkilaburrak.com

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak, garajeak: alokatu, 10 euro; saldu,15 euro. Autoak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

1.1. Salgai
1.2. Errentan
1.3. Konpartitzeko
1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

2.1. Salgai

3. LOKALAK

3.1. Salgai
3.2. Errentan

4. LANA

4.1. Lan bila
4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

5.1. Eskaerak
5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

6.1. Salgai/Erosgai
6.2. Eman
6.3. Galdu/Aurkitu
6.4. Bestelakoak

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

– Eibarko erdialdean pisua salgai. 3 logela, egongela, sukaldea, komuna eta trasteroa. Balkoi bi. Dena kanpora begira. Sartzeko moduan. Tel. 943-206322 edo 943-200547.

– Pisua salgai Eibarko erdialdean. Sartzeko prest. Aukera paregabea. Tel. 629-533695.

– Legarreko dorreetan pisua salgai. 3 logela, egongela, sukaldea, komun bi, balkoia eta despentsa. Aukera paregabea. Tel. 653-733357.

1.2. Errentan

– Bikote arduratsuak pisua hartuko luke Eibarren alokairuan. Tel. 687-388493 edo 638-520784.

– Gela alokagai Legarren, zentrotik gertu, etxean bi izateko. Kalefakzioa eta wifia. Tel. 620-633434.

1.3. Konpartitzeko

– Neska bi behar dira logela konpartitzeko. Ohe bi eta bainugelarekin. Donostiako EHUren ondoan. Merke. Tel. 665-700027.

1.4. Etxe-trukaketa

– Elgoibarko Babes Ofizialeko pisua (Toletxegain geltoki parean) Eibarko beste batengatik aldatuko nuke. 70 m². Logela bi, egongela, sukaldea, komuna eta trasteroa. Garajea. Tel. 659-381317.

2. Motorra

2.1. Salgai

– C-15 furgoneta salgai. 12 urtekoa. 250.000 km. Egoera onean. 800 euro. Tel. 677-388629 edo 943-201504.

4. Lana

4.1. Lan bila

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 638-711269.

– Magisteritzako ikaslea eskaintzen da umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 679-237611.

– Emakume arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Externa. Esperientzia. Tel. 943-702357 edo 662-252150.

– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Asteburuak barne. Tel. 618-828506.

– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta tabernetan lan egiteko. Asteburuak barne. Tel. 630-404538.

– Emakumea eskaintzen da 15.00etatik 19.00etara nagusiak zaindu eta etxeko lanetarako. Tel. 647-044031. Marian.

– Mutila eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 653-402884.

– Neska eskaintzen da arratsaldez edozein lanetarako. Tel. 690-791689.

– Mutila eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 943-702357 edo 652-047223.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 638-736539 edo 943-257901.

– Neska arduratsua eskaintzen da orduka umeak edo nagusiak zaindu eta etxeak, tabernak edo pegorak garbitzeko. Esperientzia. Tel. 663-786976.

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta etxeko lanetarako. Tel. 617-181542 edo 617-000972.

– Haur-Hezkuntzako ikasle euskaldunak umeak zainduko lituzke arratsaldez. Esperientzia. Tel. 626-752117.

– Pertsona arduratsua eskaintzen da tabernak, pegorak eta sozietateak garbitzeko. Tel. 687-388493 edo 638-520784.

– Neska eskaintzen da etxeko lanak egin edo umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 678-305927.

– Gizona eskaintzen da igeltsero-laguntzaile, sukaldari-laguntzaile, garbiketak egiteko edo nagusiak zaintzeko. Tel. 669-552386.

– Neska eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 690-154754. Indira.

– Emakume arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta garbiketa lanetarako. Orduka. Tel. 943-207285 edo 660-073781.

– Neska eskaintzen da kamarera moduan asteburuetarako. Esperientzia. Tel. 678-305927.

– Pladurista eta kamarero moduan esperientzia duen mutila eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 638-078908.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko gau osoan. Tel. 648-196651.

– Soinuan masterra duen neska eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 629-771791.

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 638-938307.

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 616-822781.

– Gizona eskaintzen da furgonetarekin banaketa lanak egiteko. Tel. 671-141677.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Edozein ordutan. Tel. 638-482478.

– Emakumea eskaintzen da orduka garbiketa lanak egiteko eta etxean edo ospitalean nagusiak zaintzeko. Tel. 630-410724. Dora.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 608-897639 edo 943-743618.

– Gizon gaztea eskaintzen da nagusiak zaindu edo garbiketa lanetarako. Tel. 652-047223.

– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Interna edo externa. Tel. 686-435056.

– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Egunez zein gauez. Tel. 656-493864.

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 660-367298.

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 636-302237.

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 662-423898.

– Neska arduratsua eskaintzen da umeak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 663-655509.

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 659-080186.

– Neska arduratsua eta euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko. Tel. 662-113509.

– Neska arduratsua eta euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko. Tel. 685-724192.

– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 680-223378.

– Gizona eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 616-260793. Luis Eduardo.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta etxeko lanetarako. Tel. 669-966611.

– Emakumea eskaintzen da orduka nagusiak edo umeak zaindu eta etxeko lanetarako. Tel. 664-881835.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta etxeko lanetarako. Tel. 669-311385.

– Gizon euskalduna eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 658-719676. Enrike.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaindu, sukaldari laguntzaile moduan eta tabernetan harrikoa egiteko. Tel. 645-461600. Arrate.

4.2. Langile bila

– Emakume euskalduna behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Tel. 652-743249.

– Eibarko hortz-klinika baterako laguntzailea behar da. Beharrezkoa da esperientzia izatea. Kurrikuluma bidaltzeko: 943-208475 fax zkia.

– Neska behar da tabernan arratsaldez lan egiteko. Tel. 943-208130.

– ...eta kitto! astekariak banatzaileak behar ditu. Tel. 943-200918.

– Emakume euskalduna behar da umeak zaindu eta etxeko lanetarako. Tel. 695-751648.

– Taxiaren lizentzia transferitzen da Eibarren, jubilazio batengatik. Tel. 608-875175.

5. Irakaskuntza

5.1. Eskaerak

– DBHko klase partikularrak emateko pertsona behar da. Tel. 652-700114.

5.2. Eskaintzak

– Neska arduratsua eta euskaldunak klase partikularrak emango lituzke. DBHra arte. Tel. 662-113509.

– Neska arduratsua eta euskaldunak klase partikularrak emango lituzke. DBHra arte. Tel. 685-724192.

– Ingeniari teknikoak Matematikak, Fisika, Kimika eta Dibujoko klase partikularrak ematen ditu Eibarren. DBH eta Batxilergo mailak. Tel. 692-596157.

6. Denetarik

6.1. Salgai

– Egongelarako altzariak salgai. Ia berriak. Prezio onean. Tel. 943-120308.

– Bigarren eskuko ordenagailua (portatila edo mahaikoa) erosiko nuke. Tel. 943-702264.

– Setter ingles arrazako txakurrak salgai. Prezioa: 150 euro. Tel. 645-005943. Jon.

6.2. Eman

– Arratoiak harrapatzeko katu zein katakumeak oparitzen ditut. Tel. 615-729400. Igor.

– Oso mantsoa eta polita den katakumeak etxea behar du. Hiru hilabete ditu eta egurtua izan da. Tel. 656-758793.

6.3. Galdu/Aurkitu

– Abuztuko lehenengo astean argazkikamara galdu nuen Barrena edo Barakaldo inguruan. Aurkitu baduzu, deitu mesedez. Tel. 665-792861.

Irailetik aurrera 5 eguneko Teorikako ikastaro trinkoak

ZEZEN BIDE

AUTO ESKOLA

AUTO ESCUELA

CURSOS INTENSIVOS

ORDUTEGIA:
09.30-13.00
15.30-20.30

GIDA-BAIMENAK

San Andres, 1 ac
Tel. 943 20 34 45
EIBAR

Iriondo Promozioak

Santa Ana, 4-6 ELGOIBAR www.iriondodecoracion.com Tel. 943-741234

NEOX EGURREZKO SOMIER FINKOA

5 urteko garantia

MUELLEDUN KOLTXOIA + VISCO

%100 LATEX KOLTXOIA

HR KOLTXOIA + VISCOLASTICA

90x190 459 €
135x190 684 €
150x190 684 €

*Hankak prezioan sartu gabe

astral

5 urteko garantia

DOUBLE OFFSET MUELLEDUN KOLTXOIA

BAT BURDINEZKO SOMIER FINKOA

90x190 272 €
135x190 378 €
150x190 438 €

*Hankak prezioan sartu gabe

ORBEA
KIROLDEGIA
Eibarko Kirol Patronatoa
Patronato Municipal de Deportes de Eibar
ORBEA
ORBEA
KIROLDEGIA
URKIZU Pasealekua – 943 030 015